



Guraso agurgarriok:

Ikasleei botikak eman eta nola jokatu gaixotasun edo ezbeharren bat izanez gero eskola orduetan, 9:00etatik 16:00etara, gaiaren inguruan, hurrengo kontsiderazioak egin nahi dizkizuegu:

1.- Gaixotzen edo ezbeharren bat izaten duen ikaslea ikastetxeko langileen arreta jasoko du edozein kasutan eta uneoro: irakasle, eguerdiko begirale, eta abar, kasu bakoitzean ikaslearekiko hoberena erabakiz eta familia jakinaren gainean jarritz.

2.- Ikasle bat eskolan dagoela gaixotzen denean, eta bertan jarraitzeko baldintzetan ez dagoenean, familia abisatuko da bere bila etor dadin.

3.- Ikasleren batek ezbeharren bat jasanez gero eta medikuaren esku-hartzea egokia ikasuten badugu, osasun-zentrora edo ospitalera eramango da kasuaren arabera, honen berri familiari emanez batera edo bestera joan ahal izan daitezen beharrik balego. Ezbeharra arina bada eta ez bada medikuaren esku-hartzerik behar, ikastolan tratatuko da bertako langileen aldetik familiari gertaera jakinaraziz. Bai ikaslearen garraiatzeak, bai mediku laguntzak, ez dute inolako kosturik izango, Osakidetza eta Hezkuntza Sailaren arteko akordioak direla eta.

4.- Ikasleei botikak era ez kontrolatuan ematearen kaltegarritasunagatik kezkatuta, jarabeak, sobreak, pilulak eta kapsulak bereziki, familiei zera eskatzen diegu: eskola orduetan botikarik hartzearen beharra egonez gero tutoreari ohar bat bidaltzea ondorengo datu guztiekin: ikaslearen izena, botikarena, medikuak agindutako dosia, hartzeko ordutegia eta guraso/tutorearen izenpea. Txikien kasuan, 2, 3, 4 eta 5 urtekoak, eta arriskuak saihesteko asmoz, ezinbestekoa da botikak era egokian bidaltzea umeek ireki eta manipula ez ditzaten, medikamenduak txikien eskura ezin baitira egon.

5.- Orokorki, ikastolako langileek ez diete bere kabuz antipiretiko, antihistaminiko, ukendu edota botika analgesikorik emango ikasleei.

6.- Azkenik, gogoratzen dizuegu kaltetuaren zein bere kideen onerako, eta eskolen garapen egokirako, ikasleak ez direla ikastolara etorri beharko gaixorik daudenean, etxean egon beharko dutelarik zeharo sendatu arte.

Jarduketa protokolo honen bidez nabarmendu nahi dizuegu zuen seme-alabak egoki zainduak egongo direla uneoro, eta zuek jakinaren gainean. Agur bero bat.

ZUZENDARITZA